



Ge be bai runners,
Iraia Garcíaren
eskutik

2.orr

Mugikorretarako
aplikazioa urte bat
bete du arrakasta
osoz

3.orr

Herriko garbiketa
eta lorezaintza
lanak hobetuko
dira

5.orr

Auzolandegiak eta
Eskoziara bidaia

6.orr

Ikastaroak
2015-2016

7.orr

Jaiak gogoratuz

8.orr

Aurrekontu parte-hartzaileak

→ Hirigintzan ere, herriak du hitza



kirola

Gu be bai runners!

“Gu be bai runners - Lemoan” izeneko ekimena jarri dau martxan Lemoako Udalaren Berdintasun Sailak. Ekimenaren helburua andrak alkarregaz kirola egitea da, bai oinez, bai galapan. Horretarako Iraia Garcia atlela zornotzarra prestatzaila izango da, entrenua behar dan moduan prestatako: beroketak, luzaketak....

La atleta zornotzarra Iraia García será la encargada de preparar los entrenamientos.

Kirola egiteko orduan, hiru aukera egongo dira: oinez egitea, galapan egiten hastea eta galapan egiten jarraitzea. Prestatzaileak andra baxotxari egokitutako entrenua proposatuko dau. Beraz, Lemoako andra guztiak animatu gura doguz runners izatera.

Informazio gehiago izateko edo izena emoteko, deitu **Lemoako Udaletxera: 94 631 3005**

Habrará 3 modalidades: andar, introducción a correr y carrera continua.

La iniciativa tiene como objetivo que las mujeres hagan deporte en grupo.

Gu be bai runners
Lemoa
ANDRAK ALKARREGAZ GALAPAN

Teletramiteak egiteko aukera
Posibilidad de realizar teletrámities

lemoa.net

Udaletxea / Ayuntamiento

94 631 30 05
94 631 34 59

Bake epaitegia / Juzgado de paz

94 631 25 52

Postetxea / Correos

94 631 40 64

J.B. Eguzkitza Meabe Eskola

94 631 32 28

Liburutegia-Ludoteka /

Biblioteca-Ludoteca

94 631 20 64

liburutegialemoa@euskalnet.net

Osasun Kontsulategia /

Consultorio Médico

94 631 31 16

Botika / Farmacia

94 631 30 18

Giza-Zerbitzuak / S. Sociales

94 631 17 17

Jubilatuen etxea / Club de

Jubilados

94 631 41 73

Udal Kiroldegia /

Polideportivo Municipal

94 631 42 97

Taxi Zerbizua/Taxis

Inigo Garcia: 609 43 14 34

Aitor Cuadrado: 688 61 94 05

Lemoako mugikorretarako aplikazioa gero eta erabiliagoa

2014eko uztailean Lemoako Udalak sortutako mugikorretarako aplikazioak urte bat bete du. Herritarrekin komunikazioa zuzenagoa izatea lortu da ekimen honekin.

Aplikazioa Udalaren eta herritarren arteko erlazioa zuzenagoa izateko jaio zen eta herritarrek egindako iradokizun, kexa eta eskaerari ezker gertakari ugari jaso dira. Gertakari horiei esker Udala eta herritarren arteko komunikazioa zuzenagoa izan da. Era berean, komunikazio eta erantzuteko denborak murriztu dira, Udal lana eraginkortuz.

Lehenengo urte honetan Udal izaera duten akatsak, arazoak edo beharrak transmititzeko iradokizunak, kexak eta eskaerak egiteko aukera eman du aplikazioak. Hurrengo hilabeteetan Lemoako Udalak modulu eta zerbitzu berriei esker aplikazioaren aukerak zabaldu nahi ditu.

Aplikazioa Android eta IOS sistemetako dendetan dago eskuragarri, guztiz doakoa da eta euskaraz eta gazteleraz instalatu daiteke, beti ere norberak mugikorra konfiguraturatuta duen hizkuntzaren arabera.

La aplicación para teléfonos móviles creada por el Ayuntamiento de Lemoa ha servido para que se notificarán múltiples incidencias en forma de quejas, sugerencias o peticiones.

La aplicación se puede obtener a través de las tiendas de los sistemas operativos Android e IOS, es totalmente gratuita y se puede adquirir tanto en castellano como en euskara.





aurrekontu parte-hartzaileak

Hirigintzan hobekuntza lanak

Bigarren legegintzaldi honetan ere Lemoako Udalak aurrekontu partehartzaileen bidean sakontzen jarraituko du. Beste pauso bat emateko momentua heldu da, eta orain arte lortutako dinamikei eustez aparte, beste bide berri bat ere zabalduko da.

Bide berri horrekin herritarren erabakitzeko ahalmena edo boteretzea indartuko da; aholkulari edo gomedio emaile papera izatetik erabaki efektiboak hartzera pasatzea.

Eta pa berri honi ekiteko, Lemoan garatuko diren partehartze prozesu guztiak barnebilduko dituen irudi berri bat kaleratu eta promozionatuko da. Partehartzearekin eta demokrazia zuzenarekin erlazionatutako prozesu herritar guztietan erabiliko du Udalak irudi berri hori; aurrekontuen diseinua, auzolanak, hirigintza jardunaldiak, Agenda 21, kultur proiektu integrala,...

Urte hauetan metatu dugun esperientziak erakutsi du zenbait dinamika arrakastatsuak direla eta funtziona-

tzen dutela, auzoetako buzoiak, hautetsien bisitak auzoetara (buzoiak jasotzerakoan) eta teknologia berrien bidezko partehartzea (mugikorretarako aplikazioa, web orria eta sare sozialak), besteak beste.

Herriak hautatu

Hirigintzarekin loturiko ekimena da hau. Udalak (herritarren esanak kontutuan hartuz) lau proiektu ezberdin

aurkeztuko lituzke, eta aukeraketa- ren azken hitza herritarrek beraiek izango lukete kontsentsu edo boz- keta bidez. Printzipioz, hirigintzako lan "handiak" izango lirateke:

- Elizondoko futbito zelaiak konpon- tzea (lurra eta harmailak).
- Estaziokoetat aparte, beste komun publiko batzuk egitea (kokapenik egokienak aztertu beharko dira).
- Herriko parkeren bat estaltzea.
- Zubi berriak Tallerretarako paseoa zati konpontzea.



4 pausotan garatuko da partehartze prozesua bera

- 1 Herrian zehar jarritako buzoietan eta mugikorrek aplikazioaren bidez herritarren ekarpenak jasotzeko epea. Irailaren 21etik urriaren 18ra.
- 2 Hautetsiak auzorik auzo buzoiak jaso eta herritarrekin batzartzeko. Urriaren 19tik 25era. Buzoiak izako leku berdinetan ipiniko dira eta jasotzeko ordutegiak aurrerago zehaztuko zaizkie herritarrei.
- 3 Aurtengo berritasuna izango den herri bozketa urriaren 26tik azaroaren 1era bitartean burutuko da. Bertan, aurreko urteetan irteerako lau proiektu zehatz aurkeztuko zaizkie herritarrei eta horietako bat aukeratuko dute 2016an egin dadin.
- 4 Partehartze prozesua amaitzeko herri batzar zabala ospatuko da azaroaren 12an, 19:30etan jubilatuen gaineko aretoan. Batzar honetan Udalak herritarren ekarpenekin osatutako proposamena aurkeztuko du.

Lemoa.tzen, informatu eta jakin

El Ayuntamiento pondrá en marcha una web para que la ciudadanía haga el seguimiento de todos los proyectos en curso.



Urte hauetan egindako lanak bere fruituak eman ditu, eta hainbat adibide ditugu horren erakusle; urteroko aurrekontuen prozesuak, berdintasun plana, auzolanak, elkartearen ordenantza berria... Orain arte egindako lanak gauzak beste era batera egin daitezkeela erakutsi du, ehundaka herritar izan gara prozesu ezberdinetan parte hartu dugunak eta udalgintzara hurbildu garenak.

Partehartzearen inguruan oinarri sendo bat sortzea lortu dugu, eta herritarrok lan egiteko modu hau ulertu eta babestu dugula ikusi da. Horregatik, norabide honetan pauso berriak emateko momentua heldu da, partehartzean sakontzea tokatzen zaigu.

Partehartzeaz hitz egiten dugunean, komunikazioaren garrantziaz ere ari gara hitz egiten. Izan ere, guztiz lotuta dauden bi kontzeptu dira partehartzea eta komunikazioa. Egin ahal izateko jakin egin behar da, eta jakin ahal izateko komunikazioa zaindu behar da. Beraz, partehartzean sakondu nahi badugu komunikazioa ere indartu beharko dugu.

Egiten den guztia azaldu behar da

Lemoan garatuko ditugun partehartze prozesu guztiak barnebiliduko dituen irudi berri bat kaleratu eta promozionatu dugu. Partehartzearekin eta demokrazia zuzenarekin erlazionatu-tako prozesu herritar guztietan erabiliko da irudi berri hori; aurrekontuen diseinua, auzolanak, hirigintza jardunaldiak, Agenda 21, kultur proiektu integrala,... Filosofia edo lan egiteko modu honetan emango dira pauso ezberdinak norabide berdinean doazela azpimarratuko du irudi berri honek.

Webgune berri honen asmoa ere horixekoa da; komunikaziorako aukera berri bat eskaintzea lemoaztarroi. Herrian martxan dauden lan edo prozesu ezberdinen jarraipena egiteko tresna izango da webgune hau. Horrez gain, arreta bere-

zia jarriko zaie modu batean edo beste partehartzearekin lotuta dauden kontu guztiei, jarraipen berezia eginez. Beraz, balio dezala tresna berri honek ere denon artean herritarren Lemoa eraikitzen jarraitzeko.

Adjudicación de la limpieza y jardinería

La UTE formada por GRUPO SIFU EUSKADI, S.L.-BROCOLI, S.L. ha sido la adjudicataria del contrato de dos años para los trabajos de jardinería y limpieza de Lemoa. El precio de la adjudicación de la jardinería es 169.226,45 euros, e incluye mejoras sustanciales respecto a contratos anteriores, como el aumento de la frecuencia en el desbroce de caminos (antes se realizaba tan solo dos veces al año y a partir de ahora será trimestral) y la colocación nuevas macetas y un contenedor para los residuos vegetales, entre otras. Respecto al servicio de limpieza viaria (152.492,41 euros, contrato 2 años) se mejorará en las frecuencias en caminos, barrios y zonas de pabellones industriales, de mensual a una periodicidad quincenal.





gazteria



Mundu guztiko jendea etorri da Lemoako Auzolandegietara

→ Errusia, Frantzia, Italia, Alemania, Txina, Korea edota Taiwanetik etorri dira Lemoara uda honetan.

Lemoako Auzolandegiak oso ondo atera dira aurrean, eta lubakietan aurrerapauso handia eman da. Beste puntu batetik abiapuntu da, Gaintzabal tontorraren beste aldetik. 140 metro inguru berreskuratu eta atondu dira. Aurkikuntza aldetik, material nahiko eta ezberdina aurkitu da: larruzko kartutxerak, oinetakoak, gudari baten arropetako belarria, etab. Horretaz gain, ohikoak diren gauza asko ere agertu izan dira, besteak beste, balak, metraila zatiak, etab.

Guztira, 40 gaztek hartu dute parte, 15 eguneko 2 txandatan. Mundu guztitik etorritako jendea izan da Lemoan; Errusia, Frantzia, Italia, Alemania, Txina, Korea, Taiwan, Espainia eta Euskal Herritik etorritakoak, besteak beste. Ostatu gisa eskola erabili da, eta bertan egin dira egin beharreko ekintza asko ere. Aurrean, Tito Aguirre eta Alberto J. Sampedro izan dira Aranzadiko teknikariak. Horretaz gain, Aranzadiko boluntario asko ere izan dituzte laguntzaile.



Oraindik lan handia dago egiteko. Lemoatxeko egindakoa egin beharreko guztiaren %50 baino ez da, eta, memoria historikoari dagokionez, oraindik pauso handiak eman beharko dira.



Eskoziako bidaiak

→ Dokumental baten bilduko dira egindako elkarrizketak eta elkarlanak.

Lemoako 27 gazte eta 2 hezitzaile Eskoziara joan ziren aurrean. 16 eta 21 urte bitarteko talde honek Glasgow eta Edimburgon egin zituen ekintza gehienak. Bertan hainbat jendekin batu ziren gazteek elkarrizketa batzuk egiteko. Hauek grabatuta gelditu ziren eta orain dokumental bat egiten dabilta. Elkarrizketatutako jendearen artean, politikariak, erakundeetako partaideak, kanpoko jendea eta euskaldunak daude. Landutako gaia partehartzea izan zen eta horretan erreferendurik pisu handia izan zuen.

kultura

CURSOS Y TALLERES para todos los gustos

Las y los vecinos de Lemoa contarán, un año más, con una atractiva oferta de cursos y talleres. Organizados por el Ayuntamiento, destacan por su variedad y un enfoque que abarca varias disciplinas, desde la gastronomía (con cursos de cocina de autor y cata de cerveza), la informática, la salud (refuerzo del suelo pélvico) o la música (percusión africana e inteligencia emocional).

Los plazos de inscripción ya están abiertos.
Más información: www.lemoa.net

CURSOS 2015-2016

COCINA: COCINA DE AUTOR EN MINIATURA Y PINTXOS VARIADOS

MECÁNICA DE BICICLETAS

PATCHWORK

REFUERZO DEL SUELO PÉLVICO (básico)

APRENDE Y PRACTICA EUSKERA

CURSO DE MANUALIDADES

CURSO DE INFORMÁTICA

TALLER DE CATA DE CERVEZA

REFUERZO DEL SUELO PÉLVICO (avanzado)

CREMAS ARTESANAS

TU HUERTO EN EL BALCÓN

INTELIGENCIA EMOCIONAL Y CONCIENCIA CORPORAL A TRAVÉS DE LA PERCUSIÓN Y LA DANZA AFRICANA



Parte hartu argazki lehiaketan!

Lemoako 2016ko egutegian zuk aterako argazkiren bat agertzea nahi duzue? **IV. Argazki Lehiaketan** parte hartu, eta bidali zure argazkiak urriaren 1etik 30era arte. Gaia Lemoa da. Besterik ez. Saritutako argazkiak egutegian argitaratuko dira, eta 30 euroko saria izango dute.

Oinarriak eta informazio gehiago:

www.lemoa.net



Lemoako jaiak 2015

HURRENGO URTERARTE!



www.itunefoto.com



atxubieta

www.lemoa.net